

## **1-ENTZUNAREN ULERMENA (lehen ariketa)**

(Probak 2 puntuko balioa du) (Audioa behin bakarrik adituko duzu. Audioak 10:40ko iraupena du).

Egizu aditu duzun audioaren 125-150 hitzeko laburpena, bertan informazio esanguratsuena zehaztasunez jasoz. (Bigarren audioa 30 minutu barru paratuko dugu)

---

## **1-ENTZUNAREN ULERMENA (bigarren ariketa)**

2 puntuko proba da, 0,20ko balioa galdera bakoitzak.

Iban Arantzabal Tokikom elkarteko presidentearen gogoeta entzunen duzu tokiko kazetaritzaz, kazetaritza lokalaz mintzo dela. Bi aldiz entzunen duzu audioa eta 5' 10" irauten du.

### **(Audioak entzundakoan, bi ordu duzu proba osoa burutzeko)**

1. Iban Arantzabalen esanetan zein dira tokiko kazetaritzaren borroka eremuak?
2. Informantea eta notizia gertukoa denean ondorioak ditu kazetariarengan, zeintzuk dira?
3. Tokiko kazetariarena lan zirrargarria dela dio Ibanek, zer ezaugarri ditu kazetaritza horrek?
4. Zergatik aipatzen du Ibanek kazetariak ere badirela notario?
5. Baina notarioek ez bezala, kazetariak...
6. Sinisgarritasuna lortu nahian zer ez luke egin behar kazetariak?
7. Zein kasutan ez luke inpartzialtasunik erakutsiko kazetariak?
8. Iban Arantzabalen ustez, zer da hiritarren artean arrakala handitzen duena?
9. Ildo beretik jarraituz, zer zioen Sarrionandia idazleak?
10. Nolako kazetaritza aldarrikatzen du Iban Arantzabalek?

## **2-IRAKURRIAREN ULERMENA ETA IDATZIZKO PRODUKZIO ARIKETA**

Egizu testu honen laburpena eta testuak dioenari buruzko zure gogoeta ere eman ezazu. (Gehienez 150-200 hitz) (Proba honen balioa: 3 puntu)

## Zoriona

Doi-doietarik heltzen igar daitekeena da. Nihaurek ez nukeen erranen horrela helduko zitzaidala, holako gozamen bat-bateko eta erabatekoa.

Besaulkian urtzen noa, hasperen batean, leihotik soa galdurik.

Noiz eta, justu xuxen, bi oren eta erdiz bakar-bakarrik egona bainaiz, ardura ez gertatua. Eta aspaldian ez baitzitzaidan gertatu garbiketa egitea etxean, bi oren iragan ditut mustuka higatzen. Ez ditut zoko guziak altxatu eta errautsak uxatu azken izkinaraino, ez, ez... Baina inork ez nau nire lanean moztu, ez da telefono deirik izan, ez haur mukizurik marrumaka, nehor ez atean... Bi oren bakean. Eta, gauza arraroa: ez nukeen beste nonbait egon nahiko.

Egia nekez konprenitzekoa dela arratsaldea bazter torratzen ematearekin kontent gerta nadin. Bat baino gehiago entzuten dut itotzear: bizi az baliatu behar dela bururik hautsi gabe, aisialdia ez dela horretarako, gaizki antolatua edota burutik joana naizela. Beste anitzek ez dute ulertuko nola posible den gainditua izatea hainbesteraino non, tarte bat libratu orduko, etxeko lanei heltzen natzairen. Badira eta gauza inportanteagoak: mundua, gerla, Monsantoaren desmasiak, bake prozesua, ekonomia, liburu bikain berriki publikatua, merkealdiak Galeries Lafayetteen...

Preseski ez da garbiketaren kontua izan, kronologikoki ondotik eta logikoki ondorioz gertatua baizik.

Arratsaldea bukatuko dut holako betetze sentimendu bitxi baina erreal batekin. Gogo arin, nire post-it-ean zen azken zeregina marraturik, gauzak oro leku eta estatu onean daudela. Egongelan zain dut atsedenerako taula-gaina, eskainia, leher nadin han erdian, eszena bakarrean sofaren zabalera osoan ene burua heda dezadan lau patak airean, zinkur in libratzaile batean ihalozkatzeko, arima haragitik bereizten doakidala, gorputzaren trabak gainditurik gozamen era heltzeko.

Zoriona ez da garbiketa egin izana, ez eta deus egitekorik ez ukaitea. Ez da zoritxarrik ez izatea bakarrik. Ezin da poza soilari mugatu ere ez.

Zoriona, derrigorrik, urgentziarik, obligaziorik ez ukaitea da, denboraz batere arrangurarik ukan gabe bizi ahal izatea, laburki bada ere. Istant hori da, zeinetan deusek ez

zaituen beste zerbaitetara akuilatzen, behartzen, zeinetan deusek ez duen premiarik, arnasa har baitaiteke eta gogoia alhan utz funtsik gabeko detaileetan. Urostatasuna segundo ahurtara bat duzu zeinetan ez baitzaitu ezerk erretenitzen, erreprimitzen. Ez da ez aitzina ez gibelera behatzeko arrazoirik. Hor egon zaitezke lasaiki, dilindan, nehora lerratu gabe. Oreka puntuan kulunkan.

Laster telefonoak joko du buruhauste zenbait ekarriz, ez bada ateko txirrinak ene loeri gozotik inarrosiko nauela: dena suntsitzeko.

*Bea Salaberri, Baionak ez daki (Susa, 2015)*

---

### **3-GAITASUNAK ERAKUSTEKO ARIKETA-USTIAKETA DIDAKTIKOA**

Ondoko bi testu hauen ustiaketa didaktikorako proposamena egin behar duzu. Bi testu, proposamen bana. Zehaztu ahalik eta gehiena: maila, noiz egin, jarduerak, jokoak, talde dinamika, testuan zer/nola landu ... (Ariketa honek 3 puntuko balioa du)

## **A-TESTUA**

### **Beldurra ezagutzen ez duen emakumea**

S.M.-k 44 urte ditu, eta, mundu osoan, garuneko amigdalaren bi zatietan ia erabateko lesioa duen pertsona bakarrenetako bat da. Lesio horren ondorioz, ezohiko bereizgarri bat du emakumeak: ez du beldurrik sentitzen, ez du emozio hori ezagutzen.

“Biziraupena da beldurraren zerizana, eta amigdalak laguntzen digu gure bizitza arriskuan jartzen duten egoerak, pertsonak zein objektuak ekiditen”, laburbildu du Iowako Unibertsitatean egin berri den ikerketaren arduradunak. “Aztertu dugun pazienteak, ordea, ez du amigdalarik. Eta, hortaz, arriskua detektatzeko eta hura saihesteko gaitasunik ere ez du. Nahiko deigarria da hark bizirik jarraitzea”.

S.M.-ren kasua duela zenbait urte ezagutarazi zuten ikertzaileek. Emakumeak Urbach-Wiethe deritzon endekapenezko gaitz zerebrala du, ezohikoa, eta horrek piztu zuen neurologoen interesa. Gaixotasunak eragin zion, hain justu, amigdalaren lesioa, eta horrek ondorio nabarmenak izan ditu emakumearen eguneroko bizimoduan.

Iaz, adibidez, Kaliforniako Teknologia Institutuko ikertzaileek espazio pertsonalaren presentzia aurkitu zuten garunean. Espazio pertsonala gizabanakoek beren inguruan duten babes-eremu bat da. Norbait eremu horretara sartzean, pertsona deseroso sentitzen da — egoeraren eta gerturatzen den pertsonaren arabera eremuak neurri ezberdinak ditu—. Bada, ikertzaileek ikusi zuten S.M.-k bakardadea edo tristura eta beste emozio batzuk sentitzeko gai dela, baina ez duela beldurrik sumatzen pertsonen aurpegietan. Are gehiago, ia ezagutzen ez duen jendearekin “adiskidetsuegi” jokatzeko du, haien espazio pertsonala gaindituta.

Orain, Iowako ikerlariak izan dira S.M.-ren kasua aztertzen jarraitu nahi izan dutenak. Haien aurkikuntzek garunaren eta portaeraren arteko loturari buruzko informazio berria eskaini dutela diote. Emaitzak *Current Biology* aldizkariak plazaratu ditu.

Diotenez, aurkikuntza hau lagungarria izan liteke trauma-ondoko estresa zein bestelako antsietate-egoera larriak dituztenen tratamendu berriak aurkitzeko bidean.

Izaro Aulestiarte, Elhuyar 2011/01/30

## **B-TESTUA**

### **Londresko pizzerian**

Londreseko pizzeriarik hoberenera joan ginen

eta lekua jendez gainezka egon arren  
kamareroa minutu batera etorri zitzaigun  
zer poza bai poza, zer poz handia.

Zer nahi duzue? Esan zigun kamareroak,  
Pizza mota guztiak dauzkagu, lasagnak, espagetiak  
Ba al daukazue fetuccinirik? Galdetu zenuen zuk  
zer poza bai poza, zer poz handia.

Zer jende da hori?, galdetu nizun kalea seinalatuz,  
Eta operara zihoan jendea zela erantzun zenidan,  
eta zer poza ematen zizun giroa hain animatua ikusteak,  
zer poza bai poza, zer poz handia.

Ez, ez, abrigo gris eta bufanda txuriko horiek ez, esan nizun,  
baizik eta autobus geltokian etzanda dauden horiek;  
aizu, esan zenidan, oso pozik nago ezagutu izanaz,  
zer poza bai poza, zer poz handia.

Bai ni ere bai, esan nizun, asko poztutzen naiz,  
baina autobus geltokiko horiek nor diren jakin nahi nuke.  
horiek eskaleak dira, Londreseko homeless famatuak  
zer poza bai poza, zer poz handia.

Poztu egiten al zara eskale horiek ikusiz?, esan nizun;  
ez, berriro esaten dizut zu ezagutu izanak pozten nau  
benetan, benetan  
bizitzan pasa zaidan gauzarik onena izan da  
benetan, benetan  
zer poza bai poza, zer poz handia.

GARI